


ARIKETA




Goiko bistan 9 x 12 m-tako dimentsioak dituen laneko plataforma bat eusten duten portiko bietako zutabe eta habeentzat profil egokiena aukeratu behar da. Plataforma "trames"arekin eginda dago (lauki-sare metalikoa), eta ondorioz ez da kontsideratu beharko ez elurraren karga, ezta haizearen akzioa ere. Erabilpenarengatik gainkarga plataformarentzat 1 kN/m^2 -takoa da, gainera, portiko bakoitzak karga karakteristiko bertikal bi dituzte 150 kN eta 70 kN -tako baliodunak mutur bietan, aipaturiko habetik eskegita dauden instalazio ez iraunkorrek eragindakoak. Karga biek beti aldi berean eragiten dute. Kargen magnitudea dela eta, egituraren pisu propioa mespreza daiteke, baina ez "trames"arena, $0,10 \text{ kN/m}^2$ -tako balioa duena.



Kalkulurako, kontsideratuko da aukeratutako profilak ezin izango duela bihurturarengatik gilbordurarik izan, ezta albo-gilbordurarik ere.

CTE ERABILTZEA BAIMENTZEN DA

Denbora: 70 minutu



A Bista →

